

VI. Inkesta Soziolinguistikoa

Iparraldea

Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

Nafarroako Gobernua (Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua)

Euskararen erakunde publikoa-Office public de la langue basque

Baiona, 2017ko ...



VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN Iparraldeko FITXA TEKNIKOA

- Aztertutako unibertsoa Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleria izan da.
- Landa-lana SIADECO enpresak egin du.
- Datu-bilketa 2016ko azaro eta abendu bitartean egin da.
- Euskal Herrian guztira 8.200 inkesta: EAEn 4.200, Nafarroan 2.000 eta Iparraldean 2.000.
- Iparraldeko lagin osoaren akats-tartea \pm % 2,3koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q=\%$ 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: BAMen \pm % 3,7koa, Lapurdi (BAM gabe) \pm % 3,7koa eta Nafarroa Beherean-Zuberoan \pm % 4,5koa.

AURKIBIDEA:


1. Hizkuntza gaitasuna.....	4
2. Hizkuntzaren transmisioa.....	13
3. Erabilera.....	22
4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.....	28

1. HIZKUNTZA-GAITASUNA

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016n Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 20,5 euskalduna da, % 9,3 euskaldun hartzailea eta % 70,1 erdaldun elebakarra.

Horrela, Iparraldean bizi diren 16 urte edo gehiagoko biztanleetatik 51.200 euskaldunak dira, 23.300 euskaldun hartzaileak eta 174.900 erdaldun elebakarrak.


Hizkuntza-gaitasuna. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira euskaldunen ehunekorik handiena duten lurraldeak (% 49,5). Lapurdin (BAM gabe) % 23 dira euskaldunak. Azkenik, BAM eskualdea (Baiona-Angelu-Miarritze) da euskaldunen ehunekorik txikiena duena (% 8,4).


Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Atzera begiratzuz gero, hogeni 5,9 puntuko jaitsiera izan du euskaldunen ehunekoak. 1996an Iparraldeko elebidunak % 26,4 ziren, eta orain % 20,5. Euskaldun hartzailen ehunekoa, aldiz, ez da ia aldatu: % 9,3 zen 1996 eta ehuneko berbera 2016an.

Euskaldunen bilakaera. Iparraldea, 1996-2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskaldunen beherakadarik handiena Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatu da. Hogei urtean 14,5 puntutan egin du behera euskaldunen ehunekoak. Izan ere, 1996an Nafarroa Behereko eta Zuberoako 16 urte edo gehiagoko euskaldunak % 64 ziren, eta orain % 49,5 dira.


Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera

Euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta adinean behera egin ahala, elebidunen ehunekoa behera doa, 25-34 adin-taldera iritsi arte, joera aldatu egiten baita (% 15,7 dira), 1 puntuko igoera duelarik aurreko adin-taldearekin alderatuz. Igoerarik handiena, aldiz, 16-24 urte bitartekoen euskaldunen ehunekoa da (% 18,9 dira), 3 puntuko igoera aurreko adin-taldearekin alderatuz.

Arestian esan bezala, euskaldunen beherakada ez da berdin gertatzen adin-talde guztietan. Gainera, gazteen artean euskaldunen ehunekoa jaitsi ordez igo egin da, aurreko adin-multzoekin alderatuz. Euskaldunen ehunekorik txikiena 35-49 urte bitartekoek dute (% 14,6), eta handiena, aldiz, 65 urte edo gehiagokoek (% 28,1) . Dena dela daturik, azpimarragarriena, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen euskaldunen portzentajea da: % 15,7 eta % 18,9 hurrenez hurren. Horrek esan nahi du gazteen aldetik duela bost urte antzemandako joera aldaketa-errealitate bilakatu dela, hau da, beheranzko joera apurtu eta goranzko bideari ekin zaiola.

Azken 20 urteotako bilakaerari begiratuz gero, euskaldunen hazkundera gazteenetatik zabaltzen ari da. Horrela, 16-24 urte bitartekoen % 11,3 zen euskalduna duela 20 urte, eta egun ia 7 puntu handiagoa da. Era berean, 25-34 urte bitartekoen artean ere euskaldunen ehunekoak hazkundera izan du (% 13,6 ziren 1996n eta % 15,7 dira 2016an). Gainerako adin-taldeetan, jaitsi egin da euskaldunen ehunekoa. Jaitsierarik handiena 35-49 adin-taldearena da, ia 13 puntukoa, hain zuzen.

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera.
Iparraldea. 1996-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Adinaren araberako bilakaera hiru lurraldeetan gertatu da. Dena dela, errealitateak oso desberdinak dira.

BAM eskualdean, 65 urte edo gehiagokoek dute gaur egun euskaldunen ehunekorik handiena (% 12) eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (% 5).


Lapurdin (BAM gabe), euskaldunen ehunekorik handiena ere 65 urte edo gehiagokoek dute (% 32) eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (% 16).

Halaber, Nafarroa Behereko eta Zuberoako euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 65) eta txikiena, aldiz, 25-34 urte bitartekoek (% 32).

Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko

Euskaldunak hiru multzotan bereiz daitezke, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

Euskaldunak erraztasunaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskal elebidunak euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direnak dira. Euskaldunen % 20,9 dira. Euskal elebidunen % 75ek 50 urte edo gehiagoko ditu. Guztien lehen hizkuntza euskara da.

Elebidun orekatuak, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz zein erdaraz. Euskaldunen % 37,6 dira. Elebidun orekatuen % 82k 35 urte edo gehiagoko ditu eta ia guztien lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara da.

Erdal elebidunak hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Euskaldunen multzorik handiena osatzen dute (% 41,5). Lehen hizkuntzari dagokionez, gehien lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara bada ere, % 27k erdara izan du lehen hizkuntza.

Euskaldunen erraztasuna, lurraldearen arabera.
Iparraldea, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Lurraldeen artean erraztasunean dauden aldeak handiak dira. BAM eskualdean % 66,6k erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten du. % 24,9 berdin moldatzen da euskaraz zein erdaraz % 8,5ek erraztasun handiagoa du erdaraz.

Lapurdin (BAM gabe) ere nagusi dira erdaraz hobeto moldatzen diren euskaldunak (% 42,1). Elebidun orekatuak 37,9 dira eta euskal elebidunak % 19,9.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan % 43,8 elebidun orekatuak dira % 29,1 euskal elebidunak eta % 27,1 erdal elebidunak.

Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


Bilakaerari dagokionez, azken 20 urteotan aldaketa nabaria izan da euskaldunen erraztasunean. Horrela, 1996n euskaldunen % 34 hobeto moldatzen zen euskaraz erdaraz baino, orain % 20,9 dira. Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnen ehunekoa igo egin da (% 32,1 ziren 1996n eta % 37,6 dira orain). Erdaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoa hazi egin da. Izan ere, % 33,9 ziren 1991n eta % 41,5 dira gaur egun.

2. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Lehen hizkuntza. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko % 21,7ren lehen hizkuntza euskara da. Biztanleriaren % 15,9k euskara soilik jaso du etxean eta % 5,8k euskara eta erdara. Iparraldeko hamar biztanletik ia zortzik erdara soilik jaso du etxean (% 78,2). Erdara diogunean, frantsesari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza gaztelania, errumaniera, portugesa, errusiera eta abar direla.

Lehen hizkuntza, lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016 (%)


	Iparraldea	BAM	Lapurdi (BAM gabe)	Nafarroa Beherea/Zuberoa
Guztira	249.400	102.200	114.500	32.700
Euskara	15,9	6,1	15,9	46,8
Euskara eta erdara	5,8	3,2	7,0	9,7
Erdara	78,2	90,7	77,0	43,5

Ituria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Bada alderik lurraldeen arabera. Horrela, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren erdiaren baino gehiagoren lehen hizkuntza euskara da (% 55,3): % 46,8k euskara soilik jaso du etxean eta % 9,7k euskara eta erdara.

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenak % 15,9 dira Lapurdin eta euskara eta erdara dutenak % 7. Erdara dutenak erabat nagusi dira Lapurdin (% 77)

Azkenik, lehen hizkuntza euskara soilik dutenak % 6,1 dira BAMen eta euskara eta erdara dutenak % 3,2. Lapurdin bezala, BAMen ere lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira (% 90,7).



Azken 20 urteotan euskara soili jaso dutenen ehunekoak 10 puntu baino gehiagoko jaitsiera izan du (% 26,4 versus % 15,9). Euskara eta erdara jaso dutenen ehunekoak, ordea, ez du jaitsierarik izan, gorabeherak gorabehera, nahiko antzera eutsi dio (% 5 eta % 6 artean).


Lehen hizkuntza, adinaren arabera

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 25,5). Ehuneko horrek behera egiten du, adinean behera egin ahala. Gazteen artean, 16-24 urte bitartekoen artean, alegia, euskara soilik jaso dutenen ehunekoa % 5,3 da.

Euskara eta erdara batera jaso dutenen ehunekoa nahiko antzekoa da adin-talde guztietan (% 5 eta % 6 bitartean).

Azpimarratzekoa da 16-24 urte bitarteko gazteen artean euskara soilik eta euskara eta erdara jaso dutenen ehunekoa ia berdina dela (% 5,3 eta % 5,6 hurrenez hurren).

Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera.
Iparraldea. 1996-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Lehen hizkuntzaren adinaren araberako bilakaerari dagokionez, duela 20 urte ere lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 40,4) eta behera egiten zuten adinean behera egin ahala, eta 25-34 eta 16-24 urte bitartekoek zuten ehunekorik txikiena (% 15,9 eta % 20,4 hurrenez hurren).

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa Iparraldean hiru lurraldeetan ari da atzera egiten. Joera horiek guztiak hiru lurraldeetan gertatzen badira ere, alde handiak daude bateko eta besteko ehunekoaren artean.

BAMen 16-24, 25-34 eta 35-49 urte bitartekoen % 4 da euskara lehen hizkuntza bakar moduan edo frantsesarekin batera jaso dutenen ehunekoa. Nagusien artean, aldiz, handiagoa da ehunekoa (% 15).


Lapurdin (BAM gabe) euskara soilik eta erdararekin batera da 65 urte edo gehiagoko % 35en lehen hizkuntza, baina ehuneko hori jaitsiz doa, eta % 11koa da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan lehen hizkuntza euskara soilik eta frantsesarekin batera dutenen beherakada ere handia da adinean behera egin ahala. Izan ere, 65 urte edo gehiagoko biztanleen % 69k euskara hutsik edo erdararekin batera jaso du, eta 16-24 urte bitarteko gazteen % 38k.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Etxean jasotako hizkuntzaren arabera 16 urte edo gehiagoko Iparraldeko euskaldunak nolakoak diren aztertuko da orain.

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen % 65,2k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharra da. Euskaldunen % 19,2k euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta jatorrizko elebiduna da. Azkenik, % 15,7k ez du euskararik jaso etxean eta euskaldun berria da. Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Duela 20 urte, euskaldun zaharren ehunekoan 20 puntuko aldea zegoen (% 85 ziren 1996an eta % 65,2 gaur egun). Gaur egun ez bezala, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien ehunekoa txikiagoa zen, batez ere euskaldun berriena (% 11,1 eta % 3,9 hurrenez hurren).

Datuak lurraldeen arabera aztertuz gero, euren arteko aldeak nabarmenak dira. Horrela, BAMen erdia euskaldun zaharrak dira (% 52,4), eta laurdena jatorrizko elebidunak (% 26,4); bostena, aldiz, euskaldun berriak (% 21,3).

Lapurdin (BAM gabe) hamar elebidunetik ia sei euskaldun zaharrak dira (% 58,8) eta euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak nahiko parekatuta daude (% 20,4 eta % 20,8 hurrenez hurren).

Azkenik, Nafarroa Beherean eta Zuberoan hamar elebidunetik zortzi baino gehiago euskaldun zaharrak dira (% 82,3), % 13,4 jatorrizko elebidunak eta % 4,4 euskaldun berriak.



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. Izan ere, orain ez bezala, 1996an euskaldun zaharrak erabat nagusi ziren adin-talde guztietan.

Gaur egun, aldiz, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira (% 52,9). 1996an, ordea, adin tarte horretako euskaldunen % 4 ziren euskaldun berriak.

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa


Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Gurasoak biak euskaldunak izanik, seme-alaben % 61ek euskara soilik jaso du etxean Iparraldean, % 14,6k euskara eta erdara eta % 24,4k ez du euskararik jaso.

Gurasoetako bat baino ez izanik euskalduna, % 83,5k erdara soilik transmititu du eta % 16,5k euskara eta erdara.

Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera Iparraldea, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Aipatzekoa da guraso biak euskaldunak izanik, adinean behera egin ahala euskararen transmisioa txikiagoa dela. Horrela, euskararen transmisiorik txikiena 16-

34 urte bitartekoek dute. 16-34 urte bitarteko gazteen % 50,5ek euskara soilik jaso du etxean eta % 13,6k euskara eta erdara.

Era berean, 35-50 urte bitartean dituztenen artean, guraso biak euskaldunak izanik, % 57k euskara soilik jaso du eta % 17k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiago dituztenen artean % 63,9k euskara soilik jaso du etxean eta % 14,1ek euskara eta erdara.



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasunak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 16-34 urte bitartekoen % 25,9k euskara jaso du etxean erdararekin batera, 35-49 urte bitartekoen % 14,5ek eta 50 urte edo gehiagokoen % 11,9k.


3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa

3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei.

Aipatzekoa da 3-15 urte bitarteko seme-alabak dituztenen transmisioa eta 16-34 urte bitartekoena alderatzerakoan, guraso euskaldunek 3-15 urte bitarteko seme-alabei euskara gehiago transmititu dietela 16-34 urte bitartean dituztenei baino.

Izan ere, guraso biak euskaldunak izanik, 3-15 urte bitarteko % 66,1ek euskara soilik jaso du etxean; aldiz, 16-34 urte bitartekoen % 50,5ek. Euskara eta erdara 3-15 urte bitartekoen % 20k jaso du, eta 16-34 urte bitartekoen % 13,6k. Azkenik, 3-15 urte bitartekoen % 13,7k ez du euskararik jaso eta 16-34 urte bitartekoen % 35,9k.


3-15 eta 16-34 urte bitartekoen transmisioa guraso biak euskaldunak direnean. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gurasoetako bat euskalduna izanik ere, 3-15 urte bitartekoen euskararen transmisioa handiagoa da 16-34 urte bitartekoena baino (% 54 versus % 26k).

3-15 eta 16-34 urte bitartekoen transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


3. EUSKARAREN ERABILERA

Iparraldean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 18,3k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a) % 8,1ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b) Aldi berean, % 10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerakoek erdara erabiltzen dute beti (% 77,2) edo ia beti (% 4,5).


Euskararen erabileraren tipologia. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 0,8 dira BAMen, % 9 Lapurdin (BAM gabe) eta % 27,9 Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 7,2 dira BAMen, % 18,5 Lapurdin (BAM gabe) eta % 24,7 Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera behera egin du euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen artean, baina ez, ordea, euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen artean.

Horrela, 20 urtean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 5 puntuko jaitsiera izan du (% 13,3 zen 1996an eta % 8,1 da 2016an). Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoak gorabehera txiki batzuk izan arren, ez da askorik aldatu, 1 puntu baino gutxiago 1996tik hona (% 9,8 zen 1996an eta % 10,2 da 2016an).

Euskararen erabileraren bilakaera. Iparraldea, 1996-2016 (%)




Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gero eta txikiagoa da adinean behera egin ahala, % 13,5ekoa baita 65 urte edo gehiago dituztenen artean eta % 4,3koa, aldiz, 16-24 urte bitartekoena. Dena dela, gazteenen bi adin-taldeetan erabileraren ehunekoak berdina da (% 4) eta ez da jaitsi aurreko adin-taldeetan gertatzen den bezala.

Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoak, handiagoa da adinean behera egin ahala, % 7,3koa baita 65 urte edo gehiagokoen artean eta % 14,1ekoa, aldiz, 16-24 urte bitartekoena.

Bilakaerari dagokionez, 1996 eta 2016 artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du batez ere 50 urte edo gehiagokoen artean, baina gora egin du, ordea, gazteenen artean (% 1,3 zen 1996an eta % 4,3 da 2016an).

Euskararen erabileraren bilakaera adinaren arabera. Iparraldea. 1996-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Erabilera eremuen arabera

Etxean orokorrean eta etxeko kideekin euskararen erabilerarik handiena neba-arrebeekin egiten da. Izan ere, % 13,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du neba-arrebeekin, etxean orokorrean % 9,5ek, bikotekidearekin % 8,9k eta seme-alabekin % 9,3k.

Azken 20 urteotako bilakaera kontuan hartuz gero, euskararen erabilerak behera egin du etxean orokorrean eta etxeko kideen artean.

Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Eremu hurbilean eta formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekorik handiena lagunekin eta lankideekin egiten dena da (%12,6 eta % 10,3 hurrenez hurren) eta txikiena, aldiz, bankukoekin eta osasun zerbitzukoekin (% 2,3 eta % 4,2 hurrenez hurren).

Eremu hurbilean eta formalean ere behera egin du euskaren erabilerak, azken 20 urteotan. Jaitsierarik handiena erabilerarik handiena honako eremu hauetan gertatu da: bankukoekin ia 7 puntuko jaitsiera, udal zerbitzukoekin 6,5 puntuko jaitsiera, lagunekin 5 puntuko jaitsiera eta dendariekin ia 5 puntuko jaitsiera

Eremu formal eta hurbilean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Eremuen araberako erabileraz gain, gizarte-sareen erabilerari dagokionez, inkestatuen % 55,6k Interneteko gizarte-sareak erabiltzen ditu eta horietatik % 36,7 egunero. Erabiltzaileen adinari dagokionez, 16-24 urte bitartekoen % 81,7k eta 25-34 urte bitartekoen % 65,6k gizarte-sareak egunero erabiltzen dituzte. Hortaz, eta zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabilera handiagoa.

Interneteko gizarte-sareetan gehien erabiltzen den hizkuntza frantsesa da,. Hala ere, erabiltzaileen % 3,6k maiztasun handiz erabiltzen du euskara (euskararen erabilera % 50ekoa edo hortik gorakoa denean). Gazteen artean (16-24 urte), euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak % 5,6 dira.

4. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan, hau da, irakaskuntzan, Administrazioan eta hedabideetan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 35,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 47,5 ez alde ez aurka, eta % 17,1 aurka dago.

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen % 66,7 dago euskararen erabilera sustatzearen alde, euskaldun hartzaileen % 52 eta erdaldunen % 23,9.

Era berean, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da Nafarroa Beherean eta Zuberoan (% 55), Lapurdin (% 37,6) eta BAMen baino (% 26,4).

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.
Iparraldea, 1996-2016 (%)




Iparraldean euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 7 puntuko jaitsiera izan du orain dela 20 urteko datuarekin alderatuz (% 42,3 zen 1996an).

Euskarari buruzko interesa eta beste zenbati iritzi

Iparraldeko biztanleen gehiengoak interesa erakusten du euskararekiko. Izan ere, biztanleen % 81,7k euskararekiko interesa adierazten du: % 24,3k oso handia, % 34,2k nahiko handia eta % 23,2k zertxobait. Gainera, Iparraldeko lurralde guztietako biztanleek adierazten dute euskarekiko interesa dutela.

Euskarari buruzko interesa. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 93,3k uste du euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela etorkizunean. % 2,3k euskara hutsean egin beharko litzatekeela uste du eta % 3k, halaber, frantses hutsean.

Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen biztanleen gehiengo zabal batentzat, % 80,4rentzat hain zuzen.

Irakaskuntzari dagokionez, biztanleen % 60,2k irakaskuntza elebiduna nahiko luke seme-alabentzat (*euskaraz, frantsesa ikasgai gisa edo euskaraz eta frantsesez*), eta

gutxiago dira frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza nahiko luketenak (% 35,1). Azpimarratzekoa da 20 urtean “*euskaraz, frantsesa ikasgai*” irakastearen aldeko hautuak izan duen hazkundera, 12 puntukoa, alegia.

Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? Iparraldea, 1996-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016